

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

### **·Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

Bezero berriak erakarri nahi baditugu, lehenik eta behin produktu erakargarria eta merke eskaintzea garrantzitsua da, eta promozioak erabiltzea, adibidez: pack bereziak ekitaldietarako, deskontuak lehen erosketan... Sare sozialetan (Instagram, TikTok) kanpainak sortu, influencer gazteekin lankidetzak egin eta ekitaldi edo festetan presentzia handia edukitzea ere eraginkorra izango da.

Bezeroak mantentzeko eta hazteko, arreta pertsonalizatua eta esperientzia ona eskaintzea ezinbestekoa da. Horrek barne hartzen du: produktu beti freskoa eta eskuragarri izatea, berrikuntzak aurkeztea (lata formatuak, zapore bereziak) eta bezeroekin elkarreragin jarraitua sare sozialetan eta ekitaldietan. Bezeroak sentitu behar dute marka hurbil eta arduratsua dela.